A 1335

herrera

Jaiotza Gaiztarron

Herrera, Donostia ez bezala, eguberrietan bilutsik geratzen da. Hau da, Donostiako erdialdean aspalditxo "Zorionak" eta eguberria gogorarazten digun apaingarri ugari badago ere, Herrerak urteroko pinua besterik ez du espero. Alegia, aspalditxo herreratarrak Donostiako erdialdera hurbildu behar izan dira jaiotzak ikustera.

Aurten aldiz, Gaiztarroko denda batzuk jaiotza haundi bat prestatzea erabaki dute.

Jaiotza, Gaiztarroko lorategiaz baliatuz antolatu da, bertan ibaia eta «haurrarentzako» jaiolekua modu egokian antolatuz. Musikaz zein argi bereziez ere inguratuko da. Bitartean San Luis enparantzak, geroz eta argi gutxiago ematen duen eguberrietako pinu haundia jasoko du.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

Argazkia: Imanol Otegi

Jaiotza oso dotore gelditu da Gaiztarroko lorategietan.

altza

Feria Altzako plazan

Iarratxoko Jose Artetxe enparantzan, Santo Tomaseko feria izango dugu aurten ere, datorren ostegunean, hilak 21. Altza inguruko baserritarrek parte hartze handia izango dutenez, baserriko produktu asko aurkituko dugu azokan, gazta, eztia, abereen erakusketa... Giroa berotzeko auzoko gazteek taloak eta txistorra salduko dituzte.

19.30ak aldera, urtero bezala, Pako Mateori omenaldia egingo diote bere lagunek. Hilabetean zehar jokatu den futbol txapelketaren irabazleei Santo Tomas egunean emango zaie saria. Txapelketa honetan Askagintza, Txalaka, Ana Mari eta Lezoko Tiñelu taldeek hartu dute parte.

20.00etan txerriaren zozketa egingo da.

1956. urtetik



IZOKINA

BAKAILAUA

BERTAKO PRODUKTUAK

Fermin Kalbeton 34
Tfnoa.: 42 45 99